EUSKARABENTURA ESPEDIZIOA 2019
EUSKARAREN LANKETARAKO ESTRATEGIA

Txosten honetan jasotzen dira :

A) EuskarAbentura Espedizioa 2019 edizioan euskararen erabilera sustatzeko, eta espediziotik harago parte-hartzaileek euskarari eutsi diezaioten diseinatutako estrategiaren ardatzak ……..……..…1

B) Estrategia hori egikaritzeko egindako elkarlanak…….…..4

C) Estrategiaren eraginaren neurketen emaitzak…….5

D) Eranskinak ……...……..……8

a. "EuskarAbenturaren eragina gazteen hizkuntza-ohituretan - 2019ko espedizioko inkesten emaitzak"

b. "Hizkuntzen erabileraren neurketa EuskarAbentura 2019"

A) EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN ARDATZAK

1. ESPEDIZIOAREN AURRETIK - Proiektuaren diseinua, konpromezua eta formakuntza

- **PROIEKTUAREN DISEINUA**

Espedizioaren diseinuak berak ahalbidetzen du parte-hartzaileek euskararen aberastasuna eta aniztasuna ezagutzea:

a. Euskal Herri osoan zehar egiten den ibilbidea da.
b. Parte-hartzaileen eta bisitatzen duten inguruaren arteko harremana sustatzen da.
c. Lurralde euskaldun guztietako eta diasporako parte-hartzaileak batzen ditu espedizioak.
d. Euskararen lurraldeen historia, kultura, gizartea, geografia, ingurua… ezagutzen dute eta eta gazteek euskal kultura eta euskalgintzako erreferenteen bisitak jasotzen dituzte, haien ezagutza bereganatuz.

- **GAZTEEN KONPROMEZUA**

  Parte hartzaileek hizkuntza ohitura euskaldunak mantentzeko jarrera positibo bat dakarte aurretik.

  - Parte-hartzeko gogo irmoa erakusten dute:
    - Badakite proiektuaren oinarria euskara dela
    - Euskarazko lan bat egiten dute haien hautagaitza bideratzeko (parte-hartzeko bermerik eduki gabe, jarrera proaktiboa)
  - Espediziora joan aurretik konpromezu bat sinatzen dute euskarari eutsiko diotela esanez.

- **LANTALDEAREN FORMAKUNTZA**

  Espedizioko lantaldeko kideekin:

  - Espedizioan zehar euskara zeharka lantzen da. Horretarako, espedizioaren aurretik lantaldeari **formakuntza** ematen zaio. Bertan elkarteak landutako estrategia eta dinamika ezberdinak azaltzen dira, amankomunean bereganatu, hausnartu, ekarpenak egin eta lantaldea osoa sintonia berean egon dadin.
  - **Espedizioko euskara batzordea** sortzen da, espedizioan euskararen estretegia aplikatzeaz eta euskararen unean uneko erabilera baloratu eta sustatzeaz arduratzen dena.

2. EUSKARAREN ESTRATEGIA

Aurreko baldintzak ez dira nahikoak euskararen erabilera bermatzeko. Horregatik, lehen espediziotik EuskarAbentura elkartea euskararen estrategia lantzen hasi zen, urtez urte osatzen eta hobetzen joan dena, 2018an GEU elkartearen laguntzaz eta 2019an EBETEko Iñaki Eizmendirekin elkarlanean.

Espedizio bakoitzean errealitate ezberdin bati egiten zaio aurre. Euskararen erabilera ez da inoiz konstantea izaten, gorabeherak izaten baititu. Horregatik, garrantzitsua da erabileraren bilakaerari adi egotea, interpretatzen jakitea eta, euskararen erabilerak behera egiten duela ohartzean, aldez aurrretik landutako eta espedizioaren plangintzan sartutako estrategiak garatzea. Kasuan-kasu, estrategia eta dinamikak inprobisatu behar izaten dira baita ere.

Hona hemen 2019an garatutako ekimen batzuk:

- "Hezitzaile berritsu" papera indartu: Lantaldeak "hezitzaile berritsu" rola hartzea eguneko une jakin batzuetan, eta une horien ebaluazio kontzientea egitea, izandako eragina neurtzeko
- Faktore-diskursoak gazteekin partekatu: Gazteekin lantaldeak aldez aurretik adostutako euskararen faktore-diskurtso eraginkorrak baliatzea; errealitate soziolinguistikoarekin sentsibilizazioa bultzatzea bilatzen dutenak.
- Lantaldeak motibazio diskurtso bat egitea: Espedizioaren 3. astean (hizkuntza-jarreretan eragin nabarmena duen konfiantza giroa nagusi denean) lantalde osoak motibazio diskurtsoa egitea, euskararen erabilera guztion ardura dela gogoratuz, gazteak parte aktibo sentiaraziz, ardura kolektiboa aldarrikatuz.
- "Influencer" taldearekin elkarlana: Espedizioan lidergotza naturala zuten jzioquitarrak (8, jatorri anitzekoak) begiz jo, haiekin elkartu eta euskarari eusteko konpromezua eskatzen zaie, inguruan eragiteko duten ahalmena euskararen erabileraren alde ere baliatzeko proposatuz. Espedizioan zehar taldearen hizkuntza-jarrerak baloratzen laguntzendute eta haien hausnarketak partekatzen dituzte.

Era berean, erabileran eta jarreretan eragiteko aktibatzen diren estrategien eragina eta baliagarritasuna espedizio barrutik neurtzeko **lantaldearen behaketa eta ebaluazio lanak** ezinbestekoak dira:

- Lantaldearen ebaluazio metodologia: 5 egunetik behin inkesta bitartez ebaluazioak egiten dituzte. Langile bakoitzak ebaluazio-inkesta bere kabuz bete behar du, bere bizipenen arabera. Norberak erabilitako estrategien eta espedizioan antolatutako dinamiken eraginkortasuna ebaluatu eta norberak hartutako iniziatibak partekatzeko modua da, gero Espedizioko Euskara Batzordearentzako lan tresna oso baliagarria dena.

Esan bezala, dinamika batzuk espedizioa hasi aurretik adostuak eta planifikatuak dira, beste batzuk, aldiz, **espedizioan bertan inprobisatutako dinamikak**:

- Ost(h)ika: Hitanoaren erabilera bultzatzeko lantaldeko hainbat kidek egindako proposamena izan zen. Espedizioaren azken astean luzatu zitzaien proposamena gazteei. Orohar begi onez hartu zuten baina ezin izan zitzaion jarraipen seriorik egin. Modu informalean garatu zen.

  Ondorioak**:**
  - Ekimen interesgarria da, hainbat gazteren interesa piztu zuena.
  - Aurrerantzean plangintzan sartzea baloratu daiteke.

3. ESPEDIZIOAN ZEHAR: Egitaraua

Espedizio guztia euskaraz egiten da, baita arratsaldero antolatzen diren jarduera guztiak ere, noski. Horietako batzuk beren beregi, euskarari eskainiak dira:

- Soziolinguistika tailerrak: 6 egin ziren > Zuberoa eta Behe-Nafarroako errealitate soziolinguistikoa (Xan Aire eta Donibane-Garaziko Gaztetxeko gazteekin), Nafarroako errealitate soziolinguistikoa (Koldo Colomorekin), Arabako errealitate soziolinguistikoa (Ane Pedruzo eta Imanol Zabaletarekin), Gipuzkoako errealitate soziolinguistikoa (Kike Amonarrizekin), Lapurdiko errealitate soziolinguistikoa (Eneko Gorrirekin) eta Bizkaiko errealitate soziolinguistikoa (Jone Goirigolzarri eta Txerra Rodriguezekin).
- Arnasgune, gune misto eta gune euskaldunen dinamika: gazte bakoitzaren ingurune soziolinguistikoak bere hizkuntza-ohituretan nola eragiten duten hausnartzeko eta eztabaidatzeko dinamika.
- Gazteak eta ingurune digitala: Eusko Jaurlaritzaren "euskararen ahoku batzordearen" enkarguz, Jone Miren Hernandezek EuskarAbentura elkartearekin elkarlanean bideratutako dinamika. Hiru gai nagusi landu ziren: (1) Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilera gazteen artean, (2) (euskal) gazteen erreferenteak eta (3) mundu digitalean euskararen erabilpenari begira somatutako hutsuneak eta horren inguruko proposamenak.
- Euskarazko sorkuntzari lotutako edukiak: Iñaki Viñasprerekin inprobisazio saioa, Ruben Sanchezekin zurrumurruen kontrako bertso-tailerra euskal kulturako artista erreferenteen bisita (Pello Armendariz, Zuriñe Hidalgo, Juantxo Arakama…)

B) ELKARLANA

- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlan sailarekin elkarlana inkesta soziolinguistikoen orrazketa egiteko:
    1. Inkesta: ekainean, espedizio aurretik.
    2. Inkesta: uztaila amaieran, espedizioa bukatzean.
    3. Inkesta: otsailean, espedizioa amaitu eta 7 hilabetera.

- Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlana, espedizioko erabileraren neurketa egiteko, ohiko kale neurketak erabilitako metodologia espedizioaren beharretara moldatuz.

- EBETEko Iñaki Eizmendirekin elkarlana Euskararen Estrategia orrazteko (ikus. txostenaren 3.atala) eta honetan oinarritutako formazioa (ikus. txostenaren 2.atala) emateko espedizioko lantaldeari.

C) NEURKETETATIK ATERATAKO ONDORIOAK

Erabileraren neurketa

- Euskararen erabilera espedizio osoan zehar %83koa izan zen.
- Bilakaera: hasieran kontzientziazio maila eta erabilera altua. Konfiantza giroa sortzen hasi zenean erdarara jotzen hasi ziren (espedizioaren 20. egunean %22ak erdaraz egiten zuela jaso zen, ordura arteko ehunekorik handiena).
    - Ardura eta konpromezua eskatzeko eta **ahalduntzeko diskursoak eraginkorragoak dira talde mailan egiten direnean** (ardura kolektibo eta partekatua) **indibidualki egiten direnean baino**.
- Burututako dinamikak garrantzitsuak izan ziren erabileran eragiteko, 'txutea' sartzeko.
- Amaierako neurketan jasotako igoera dinamiken eta kontzientzia kolektiboaren ondorio izan zen.
- Gune euskaldunetako gazteek %15 gehiago egin zuten euskaraz gune erdaldunetakoekin alderatuz.
- Gune euskaldunetakoak euren artean soilik zeudenean euskararen erabilera pixka bat apaltzen zen (%93tik % 86ra), baita gune erdaldunekoen kasuan ere (%78tik % 64ra). Beraz, ondoriozta **daiteke gune soziolinguistiko desberdinetako gazteak nahastea eraginkorra** dela **euskararen erabilera handitzeko.**

Ikus. *Hizkuntzen erabileraren neurketa Euskarabentura 2019* eranskina.

Etnografia

2019ko espedizioan azterketa etnografiko xume bat egin zen. Horretarako jatorri anitzetako 5 gazteri elkarrizketa sakonak egin zitzaizkien. Jarraian bertatik ateratako ondorio nagusiak biltzen dira:

- Gazteek motibazio desberdinak zituzten espedizioan parte hartzeko
  - Arnasgunekoen kasuan, euskara ez zen helburu nagusia
- Jatorriaren (bizi diren inguruaren) arabera
  - bi "nortasun":
    - Euskara kontzienteki lehentasuna da (giro ez hain euskaldunetan)

      VS
    - Euskara norberaren parte da (arnasgunetan)
  - Honen arabera :
    - Arnasguneetatik kanpo:
      - Eskola/familia/eskolaz kanpoko ekintzetatik harago, euskal giroa topatzea zaila edo ezinezkoa zaie
      - EuskarAbenturara etortzeko motibazioan euskarak badu garrantzia kasu askotan
    - Arnasguneetan:
      - Euskara hutsean izateak ez du eragiten espediziora etortzeko gogoan
      - EuskarAbenturak laguntzen die konturatzen ingurune euskaldun bat ez dutenek euskaraz bizitzeko dituzten zailtasunez. Harritu egiten dira.
    - Bi aldeetatik (euskalkidunek eta batuaz aritzen direnek) esfortzua egin dute elkarren artean ulertzeko. Orohar denak sentitu dira eroso euskaraz egiten, are gehiago espedizioak aurrera egin ahala.
- Euskalkiek konotazio positibo bat eduki arren ("bakoitzak euskalki propioa du, eta horrek inbidia ematen dit"), gazte askok adierazi dutenaren arabera, **hiztunen profil aniztasunak laguntzen du norbere burua onartzen, konplexuak kentzen.** Argigarria da hurrengo aipua: "badakit leku ezberdinetan euskara oso ezberdina dela, nik egiten dudana eta Oñatin egiten dutena oso ezberdina da. Nik gaztelaniazko hitz gehiago

sartzen ditut, baina kontziente izan behar gara horretaz eta garrantzitsuena hitz egitea da".

- **Hizkera ezberdinen arteko ulertzeko gaitasuna ere asko garatu** dutela adierazi dute parte-hartzaile askok ("besteei hobeto ulertzen diet orain").
- Hizkuntza ohituretan espedizioan ikusi den beste lorpenetako bat "Euskaraz pentsatzen dut orain" da.
- Orohar, gazteek haien bizitzan euskarari eusteko asmoa adierazi dute, batez ere etxean, lagunartean eta ahobizi rola hartuz, euskarari eutsiz %100 euskaldunak ez diren inguruetan ere.
- Gazteek azpimarratu dute:
  - **Transmisio horizontalaren garrantzia**, lagunartean egitekoa, kalean euskaraz egitearena.
  - Gaur egun hezkuntza sistemak euskalduntze prozesua bermatzen ez duela deritzote, ez %100ean, behintzat.
  - **Euskaraz bizitzeko hautua berbalizatu/publiko egitea garrantzitsua** da
- Faltan botatzen dute:
  - Hiztegia (gazte hizkeraren ezaugarriak lituzkeena)
  - Erreferenteak (agertzen direnetatik asko erdarara pasatzen baitira)

Inkesta soziolinguistikoen ondorioak

- **Erabileran:** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan erabileraren igoera ikusten da. Nafarroan aldiz, beherakada ematen da arlo guztietan.
- **Kontsumoa:** Internet eta sare sozialetan ematen da gorakadarik handiena.
- **Etorritako lagunekin dituzten hizkuntza ohiturak:** Neskek ez dut aldaketarik sumatu. Mutilek, aldiz, hasieran baino euskara gehiago erabiltzen dute.
- **Euskara maila:** Espedizioa bukatzean, euren maila hobetu zenaren pertzepzioa %85ek zeukaten, gero aldaketak ikusten dira hilabeteak pasatu ostean, baina orokorrean mantentzen dira, Ipar Euskal Herrian izan ezik.
- **Motibazioa:** Espedizioa bukatzean, %90a oso motibatuta zegoen euskaraz hitz egiteko. Hilabeteak pasatuta motibazio honek beherako bidea egin du.

Ikus. *Euskarabenturaren eragina gazteen hizkuntza ohituretan* eranskina.

D) ERANSKINAK

Euskarabenturaren eragina gazteen hizkuntza ohituretan

2019 Espedizioko Inkesten Emaitzak

Euskarabentura Elkartea

2020.3.31

1. Erabilera

Ulertzeko:

- 5: beti euskaraz, 1: beti erdaraz
- Lehen: espedizioa baino lehen
- Gero: espedizioa eta 6 hilabetetara

Probintziako bataz bestekoak



Ondorio nagusiak:

- Gorantzko apalak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gazteengan.
- Bataz bestean euskara, gaztelania baino gehiago erabiltzen dute galdetutako arloetan (>3)
- Erabileran aldaketarik ez eta baxu mantendu (2.5) Iparraldeko gazteengan
- Beheranzkoa Nafarroako gazteengan.

Probintziaka, arlo eta generoaren arabera




Araba - Erabilera
5.0
4.5
4.0
3.5
3.0
2.5
2.0
1.5
1.0
0.5
0.0
Lehen
Gero
Guraso
Anai Arreba
Aiton-Amona
Klasekide
Irakasle
Lagunak
Aisialdia
Merkataritza
Denok
Gizon
Emakume


Bizkaia - Erabilera
5.0
4.5
4.0
3.5
3.0
2.5
2.0
1.5
1.0
0.5
0.0
Lehen
Gero
Guraso
Anai Arreba
Aiton-Amona
Klasekide
Irakasle
Lagunak
Aisialdia
Merkataritza
Denok
Gizon
Emakume


Gipuzkoa - Erabilera
5.0
4.5
4.0
3.5
3.0
2.5
2.0
1.5
1.0
0.5
0.0
Lehen
Gero
Guraso
Anai Arreba
Aiton-Amona
Klasekide
Irakasle
Lagunak
Aisialdia
Merkataritza
Denok
Gizon
Emakume


Nafarroa - Erabilera
5.0
4.5
4.0
3.5
3.0
2.5
2.0
1.5
1.0
0.5
0.0
Lehen
Gero
Guraso
Anai Arreba
Aiton-Amona
Klasekide
Irakasle
Lagunak
Aisialdia
Merkataritza
Denok
Gizon
Emakume

Arloka, probintziaren arabera

















Ondorio nagusiak

- Arabako gazteek izan dute bataz besteko erabileran goranzko handiena. Igo egin da arlo guztietan.
- Bizkaian erabilerak gora egin du modu apalean arlo gehienetan, merkataritzan izan ezik.
- Bizkaiko mutilek erabilera altuagoa azaldu dute
- Gipuzkoak ditu erabilera altuenak arlo guzietan.
- Gizpuakoako gazteek erabilera modu apalean igo dute arlo gehienetan, aiton amonekin izan ezik.
- Nafarroako gazteen erabilera jeitsi egin da arlo guztietan, irakasleekin izan ezik.
- Nafarroako mutilek izan dituzte jeitsiera handienak arlo guztietan.

2. Kontsumoa

Ulertzeko:

- 5: beti euskaraz, 1: beti erdaraz
- Lehen: espedizioa baino lehen
- Gero: espedizioa eta 6 hilabetetara

Probintziaka bataz bestekoak



Ondorio nagusiak:

- Goranzko nabariak euskarazko kultur kontsumoan gazte guztiengan.
- Gehienek erdaraz kontsumitzen zuten euskaraz baion gehiago, espedizioa baino lehen. 6 hilabetetara euskaraz, erdaraz bezain beste edo gehiago.
- Goranzko handiena iparraldeko gazteengan gertatu da.

Probintziaka, arlo eta generoaren arabaera




Araba - Kontsumoa
5.0
4.5
4.0
3.5
3.0
2.5
2.0
1.5
1.0
0.5
0.0
Lehen
Gero
Literatura
Musika
Ikus-entzunezkoak
Antzerkia
Komunikabideak
Internet
Sare sozialak
Denok
Gizon
Emakume


Bizkaia - Kontsumoa
5.0
4.5
4.0
3.5
3.0
2.5
2.0
1.5
1.0
0.5
0.0
Lehen
Gero
Literatura
Musika
Ikus-entzunezkoak
Antzerkia
Komunikabideak
Internet
Sare sozialak
Denok
Gizon
Emakume


Gipuzkoa - Kontsumoa
5.0
4.5
4.0
3.5
3.0
2.5
2.0
1.5
1.0
0.5
0.0
Lehen
Gero
Literatura
Musika
Ikus-entzunezkoak
Antzerkia
Komunikabideak
Internet
Sare sozialak
Denok
Gizon
Emakume


Nafarroa - Kontsumoa
5.0
4.5
4.0
3.5
3.0
2.5
2.0
1.5
1.0
0.5
0.0
Lehen
Gero
Literatura
Musika
Ikus-entzunezkoak
Antzerkia
Komunikabideak
Internet
Sare sozialak
Denok
Gizon
Emakume

Arloka, probintziaren arabera















Ondorio nagusiak

- Arabako gazteengan gorakadak arlo gehienetan, arabko neskek musikan eta komunikabideetan jeitsierak.
- Gipuzkoarren desberdintasunagoa apalagoa da, erabileran baino. Sare sozialetan besteek baino gehiago erabiltzen dute.
- Internet eta sare sozialetan eman dira gorakada handienak.

3. Etorritako lagunekin hizkuntza ohiturak

Ulertzeko:

- 5: Beti euskaraz
- 4: Gehien bat euskaraz
- 3: Biak berdin
- 2: Gehien bat erdaraz
- 1: Beti erdaraz





Ondorio nagusiak

- 62 gazte etorri ziren ezagun batekin espediziora. Hau da espedizio erdia.
- Mutilek hizkuntza ohitura aldaketa nabarmenak aipatu zituzten inkestetan.
    - Etorritako lagunekin izandako euskararen erabilera nabari igo zen probintzia guztietako mutilengan espedizioan zehar.
    - Ostean erabileran jeitsierak gertatu dira.
    - Hasieran baino euskera gehiago erabiltzen dute
- Neskek ez dute hizkuntza ohituretan aldaketarik somatu.

4. Euskara maila

Espedizioa bukatzean	Espedizioa eta 6 hilabetetara	Espedizioa bukatzean	Espedizioa eta 6 hilabetetara
DENOK (%) KOP. 103 	DENOK (%) KOP. 113 	ARABA (%) KOP. 15 	ARABA (%) KOP. 19 
BIZKAIA (%) KOP. 37 	BIZKAIA (%) KOP. 37 	GIPUZKOA (%) KOP. 21 	GIPUZKOA (%) KOP. 26 
IPARRALDE (%) KOP. 6 	IPARRALDE(%) KOP. 7 	NAFARROA (%) KOP. 24 	NAFARROA (%) KOP. 24 

Asko hobeto dut · Pixkat bat hobetu dut · Ez dut ezer hobetu · Okerrera egin du

Ondorio nagusiak

- Espedizioa bukatzean %85ak euskara hobetu zuelaren pertzepzioa du
- Portzentai hau 91% igotzen da espedizioa eta 6 hilabetetara. “Ez dut hobetu” esandakoen proportzioa murriztu egiten da probintzia guztietan.
- Espedizioa bukatzerakoan hobekuntza handiena Arabarrek eta Iparraldekoek nabaritu zuten (%46 eta %67k behinik behin asko hobetu zuten).
- “Asko hobetu dut” aukeratutakoen proportzioak antzeko mantentzen dira probintzia gehienetan, Iparralden izan ezik. Bertan jeitsi egiten da.

5. Motibazioa

Espedizioa bukatzean	Espedizioa eta 6 hilabetetara	Espedizioa bukatzean	Espedizioa eta 6 hilabetetara
DENOK (%) KOP. 103 	DENOK (%) KOP. 113 	ARABA (%) KOP. 15 	ARABA (%) KOP. 19 
BIZKAIA (%) KOP. 37 	BIZKAIA (%) KOP. 37 	GIPUZKOA (%) KOP. 21 	GIPUZKOA (%) KOP. 26 
IPARRALDE (%) KOP. 6 	IPARRALDE (%) KOP. 7 	NAFARROA (%) KOP. 24 	NAFARROA (%) KOP. 24 

Oso motibatuta · Nahiko motibatua · Gutxi motibatua · Ez nago motibatua

Ondorio nagusiak

- Espedizioa bukatzean gazteen %90 “oso motibatua” edo “nahiko motibatua” dago euskaraz hitz egiteko. Espedizioa bukatu eta 6 hilabeteetara, %83-ra jaitsi da.
- Gipuzkoarrak dira motibazio altuena zutenak espedizioa bukatzean (%81 oso motibatua), ostean Nafarrak (%63), Araba eta Bizkaia (biak %54) ta azkenik Iparralde (%0 zegoen “oso motibatua”, %67 aldiz “nahiko motibatua).
- Espedizioa bukatu eta 6 hilabeteetara, motibazioa jaitsi egin da probintzia guztietako gazteengan.
    - Jeitsiera handiena Iparraldean eman zen. %33ra jaitsi da “nahiko motibatua” zeudenen ehunekoa eta %57 daude “Gutxi motibatuak”. Hala ere, aipatzekoa da, hasieran ez bezala “oso motibatua” aukeratu zuela %14ak (norbait jzioqui egin zen).
    - Nafarroan eman da hurrengo jaitsiera handiena. %63tik %25ra jeitsi dira oso motibatuak zeudenak, eta %25 dira gutxi edo motibaziorik ez dutenak.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2019ko iraila

HIZKUNTZEN ERABILERAREN NEURKETA

Euskarabentura 2019

Aurkibidea

1 HIZKUNTZEN ERABILERA. DATU OROKORRA 2

2 HIZKUNTZEN ERABILERA NEURKETA EGUNAREN ARABERA 3

3 HIZKUNTZEN ERABILERA GENEROAREN ARABERA 4

4 HIZKUNTZEN ERABILERA HIZTUNAREN GUNE SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA 5

5 TALDE BEREKOEN ARTEKO HIZKUNTZEN ERABILERA 6

1 HIZKUNTZEN ERABILERA. DATU OROKORRA

1 Grafikoa: HIZKUNTZEN ERABILERA. DATU OROKORRA. EUSKARABENTURA, 2019



Iturria: Hizkuntzen erabileraren neurketa, EuskarAbentura 2019. Soziolinguistika Klusterra.

1 Taula: HIZKUNTZEN ERABILERA. DATU OROKORRA. EUSKARABENTURA, 2019

Hizkuntza	*Lagina*	*Erabilera*
Euskaraz	*1.007*	*%83,3*
Gaztelaniaz	*142*	*%11,7*
Frantsesez	*60*	*%5,0*
GUZTIRA	*1.209*	*%100,0*

Iturria: Hizkuntzen erabileraren neurketa, EuskarAbentura 2019. Soziolinguistika Klusterra.

2 HIZKUNTZEN ERABILERA NEURKETA EGUNAREN ARABERA

2 Grafikoa: HIZKUNTZEN ERABILERA NEURKETA EGUNAREN ARABERA. EUSKARABENTURA, 2019

Iturria: Hizkuntzen erabileraren neurketa, EuskarAbentura 2019. Soziolinguistika Klusterra.

2 Taula: HIZKUNTZEN ERABILERA NEURKETA EGUNAREN ARABERA. EUSKARABENTURA, 2019

		Euskaraz		Gaztelaniaz		Frantsesez	
Ibilbidea	*Lagina*	*Kop.*	*Erab.*	*Kop.*	*Erab.*	*Kop.*	*Erab.*
Lehen eguna	*411*	*351*	*%85,4*	*39*	*%9,5*	*21*	*%5,1*
Hamargarren eguna	*326*	*269*	*%82,5*	*42*	*%12,9*	*15*	*%4,6*
Hogeigarren eguna	*253*	*194*	*%76,7*	*40*	*%15,8*	*19*	*%7,5*
Azken eguna	*219*	*193*	*%88,1*	*21*	*%9,6*	*5*	*%2,3*
GUZTIRA	*1.209*	*1.007*	*%83,3*	*142*	*%11,7*	*60*	*%5,0*

Iturria: Hizkuntzen erabileraren neurketa, EuskarAbentura 2019. Soziolinguistika Klusterra.

3 HIZKUNTZEN ERABILERA GENEROAREN ARABERA

3 Grafikoa: HIZKUNTZEN ERABILERA GENEROAREN ARABERA. EUSKARABENTURA, 2019



Iturria: Hizkuntzen erabileraren neurketa, EuskarAbentura 2019. Soziolinguistika Klusterra.

3 Taula: HIZKUNTZEN ERABILERA GENEROAREN ARABERA. EUSKARABENTURA, 2019

	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
Hizkuntza	Lagina	Erabilera	Lagina	Erabilera
Euskaraz	698	%82,8	309	%84,4
Gaztelaniaz	85	%10,1	57	%15,6
Frantsesez	60	%7,1	0	%0,0
GUZTIRA	843	%100,0	366	%100,0

Iturria: Hizkuntzen erabileraren neurketa, EuskarAbentura 2019. Soziolinguistika Klusterra.

4 HIZKUNTZEN ERABILERA HIZTUNAREN GUNE SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA

4 Grafikoa: HIZKUNTZEN ERABILERA HIZTUNAREN GUNE SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA. EUSKARABENTURA, 2019



Iturria: Hizkuntzen erabileraren neurketa, EuskarAbentura 2019. Soziolinguistika Klusterra.

4 Taula: HIZKUNTZEN ERABILERA HIZTUNAREN GUNE SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA. EUSKARABENTURA, 2019

	Gune euskaldunekoak		Gune erdaldunekoak		Zalantzazkoak		Urdinak	
Hizkuntza	Lag.	Erab.	Lag.	Erab.	Lag.	Erab.	Lag.	Erab.
Euskaraz	237	%93,3	633	%78,0	48	%90,6	89	%98,9
Gaztelaniaz	17	%6,7	119	%14,7	5	%9,4	1	%1,1
Frantsesez	0	%0,0	60	%7,4	0	%0,0	0	%0,0
GUZTIRA	254	%100,0	812	%100,0	53	%100,0	90	%100,0

Iturria: Hizkuntzen erabileraren neurketa, EuskarAbentura 2019. Soziolinguistika Klusterra.

5 TALDE BEREKOEN ARTEKO HIZKUNTZEN ERABILERA

5 Grafikoa: TALDE BEREKOEN ARTEKO ERABILERA. EUSKARABENTURA, 2019



Iturria: Hizkuntzen erabileraren neurketa, EuskarAbentura 2019. Soziolinguistika Klusterra.

5 Taula: TALDE BEREKOEN ARTEKO ERABILERA. EUSKARABENTURA, 2019

	Gune euskaldunetakoen artekoa		Gune erdaldunetakoen artekoa		Zalantzazkoen artekoa		Urdinen artekoa	
Hizkuntza	Lag.	Erab.	Lag.	Erab.	Lag.	Erab.	Lag.	Erab.
Euskaraz	25	%86,2	250	%64,3	1	%100,0	0	%0,0
Gaztelaniaz	4	%13,8	79	%20,3	0	%0,0	0	%0,0
Frantsesez	0	%0,0	60	%15,4	0	%0,0	0	%0,0
GUZTIRA	29	%100,0	389	%100,0	1	%100,0		

Iturria: Hizkuntzen erabileraren neurketa, EuskarAbentura 2019. Soziolinguistika Klusterra.